

DIMA. Dagoeneko 0-2 urte arteko 11 ume dagoz haurtzaindegirako izena emonda

Haurtzaindegi publikoa egokituko dabe udabarrirako, eskoletan

Behin-behineko lekua izango da hori; iralerako Udal liburutegi azpiko lokala atonduko dabe

Aitziber Basauri

Diman herri haurtzaindegia izango dabe udabarrirako. Horretarako ituna sinatuko dabe Jaurlaritzako Hezkuntza Sailagaz. Hasikera baten, Ugarana eskolan izango dau behin-behineko lekua. Izan be, ikasturte honi begira gela bat egokituko dabe haurtzaindegia jarteko; eta, martia inguruan gertu egongo dalakoan dagoz udal arduradunak. Halandabe, 2003-2004 ikasturterako, udal liburutegiko azpikaldean Dimako Udalak daukan lokala —100 bat metro koadrokoa— atonduko dabe. Gela bi egokitu gura dabez hor: 0-1 urte artekoa, bata, eta bestea, 1-2 urte arteko umeendako. «Era berean, komunak, sukalde txiki bat eta preminazko zerbitzuak». Horixe adierazo dau Sefe Ziarrusta alkateak.

Uste baino eskaera gehiago

Dagoeneko 0-2 urte arteko 11 ume dagoz haurtzaindegirako izena emonda. Diman adin tar-te horretan dagozan umeen %46, hain zuzen be. Ziarrustak azaldu dauenez, uste baino eskaera gehiago euki dabez. «Batzarra egin dogu 0-2 urte arteko umeak daukiezan gurasoakaz, udabarritik garagarriaren 31ra artean, euren umeak haurtzaindegira eroateko aukerea azalduta. Eta, itxaroten genduana baino eskaera gehiago izan doguz, momentuz, 11». Udalak kudeatutako haurtzaindegiak 07:30etik 18:00ak arteko ordu-



AITZIBER BASAURI

Ugarana eskolan urte biko gelea badago, haurtzaindegiagaz 0-2 arteko tarte bat gura dabe.

tegia izango dau. «Bertan gixienez pertsona bik jardungo dabe beharrez; irakaslea eta haurtzaindegi teknikoak».

Orain, haurtzaindegirako «preminazko azpiegitura» bideratzen eta beharginak kontratatuko prozesuan dihardue, alkatearen berbetan. «Beharginak hartuko dauzan enpresa bat hartzea edo Udalak zuzenean kontratatuko aukerea aztertzen gabilz». Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik 15.000 euroko diru laguntzea jaso dabe haurtzaindegiaren funtzionamendurako eta martxan jarteko. Eta behargini ordaintzeko %45eko laguntzea jasotea be itxaroten dabe.

UDAL LIBURUTEGIAREN AZPIKALDEKO LOKALA

Lekua atontzeko laguntzak bideratu dabez

Udalak haurtzaindegia jarteko Jaurlaritzan aurkeztutako proiektuan udal liburutegiaren azpikaldeko lokala egokitzea proposatu izan dabe. «Baina, ez deuskue onartu obra horretarako laguntzea. Zerbitzua martxan jarteko laguntzea bakarrik onartu dau», esan dau alkateak. Halandaze, erabagi dabe eskolan gelea atontzea. Jaurlaritzaren haurtzaindegiaren ganeko dekretuari kasu eginez, egin eben eskaerea. Bideratu dabez, baina, liburutegiaren azpikaldeko lokala egokitzeko obratarako beste diru laguntza eskariak. Besteak beste, Gorbeialden eta Nekazaritza Sailean. Hasikeran, ahal dan neurrian, Arratia osorako zerbitzua eskaini gura eben. «Baina, uste baino eskaera gehiago izanda, espazio nahiko barik geratu gara».

LABURAEAN

ERMUA

'Amillanpetik, Anboto eta Gorbeako kronikak' liburua aurkeztuko dabe udal liburutegian

Ermuan, *Amillanpetik, Anboto eta Gorbeako kronikak* liburua aurkeztuko dabe gaur, liburutegian. Honorio Cadarso egilea konbidatu dabe horretarako. Emakumearen paperaren eboluzinoa, nekazaritzako sektorearen desagerpena, 90eko hamarkadan industria barrira moldatu izanak eragindako enplegu krisia, ingurumena lehengoratzeara... Gai horreek daukaz liburuak; beti be, Arratia eta Durangaldeko ikuspuntutik. Ikus-entzutekoen gelan, 19:00etan.

DIMA

Sahararako janaria batzeko ekimena

Sahararako lurralde okupatuetara janaria bialtzeko kanpaina eratu dabe Diman. Arroza, orea, lekadunak, olio eta atuna batuko dabez, besteren artean, hilearen 27ra artean. Herritarrek eskoletan, farmazian, udal-txetan eta Erosle dendan laga leikie janaria. Gero, Sahararen aldeko alkartearen Bilbo-ko egoitzara eraongo dabe.

ZALDIBAR

Trapatoni, Deskontrol, Los Navajetas eta Disorders taldeak, bihar, Katuetxe gaztetxean

Zaldibarko Katuetxe gaztetxeak kontzertua eratu dau, biharko, laugarren urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan. Trapatoni, Deskontrol, Los Navajetas eta Disorders taldeak izango dira 23:00etan.

AGENDEA

LEMOA

Kontzertua: Xabier Montoiak eskainiko dau kontzertua, gaur, eskoletako lokalean 22:30ean.

MALLABIA

Bertso jaialdia: Zihara Enbeita, Garikoitz Sarriugarte, Xabier Enbeita eta Asier Legarreta bertsolariak saioa eskainiko dabe, gaur, Herriko tabernan. Ekitaldia 22:00etan hasiko dabe.

DURANGO

Berbaldia: Menpekotasun ez toxikoen prebentzio eta tratamendurako Bizkaiko alkateak *¿A que nos enganamos?* berbaldia eskainiko dau, Emakumearen Promozinorako Zentroan. *Gune edegia* ekimenaren barruan eratu dabe. Joko

patologikoak, erosketa konpultsiboak, beharrez eta teknologia barrien menpekotasunak, besteak beste, izango dabez berbagai 16:00etatik aurrera.

BERRIZ

Idi-probak: Antonio Deunaren XLVII. Idi-Proben Sariketa Nagusia hasiko dabe, gaur, probaleku barriztuan. Sariketako lehenengo saioa 22:00etan hasiko dabe.

ERMUA

Musikea: Gauchos 4 taldeak kontzertua eskainiko dau, Ermua zineman 22:15ean. Udaleko Kultura sailak eratu dau.

Erakusketea: *Denporan dago mugea* erakusketea ikusi leiteke Teresa Murga erakustaretoan. Hilearen 26ra artean egongo da: astebaruan, 18:00etatik 20:00etara, eta, zapatuan, 11:00etatik 13:00era.

ABADIÑO. Baldintza-orriak egokitu dabez eta BAOan argitaratzeko bialdu

Matienako kultur etxeko obrea emon barik geratu ostean, barriz atarako dabe lehiaketara

A.B. |

Abadiñoko Matiena auzoan kultur etxea eregiteko beharrak emon barik geratu dira. Enkanteda enpresa bi aurkeztu dira; halandabe, batek be ez dauz Udalak eskatutako baldintzak bete. Halantxe azaldu dau Jabier Uriarte alkateak. «Barriro atarako doguz beharrak lehiaketara, dana dala, baldintza-orriak egokituko doguz.

Egitasmoaren bermea, baina, bardina izango da. Enpresa gehiagok itxaroten dogu aurkeztean».

Baldintza-orriak dekretuz bialdu dabez BAOan argitaratu daiezan

Dekretu bidez bialdu dabez baldintza-orriak barriro Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu daiezan, eta 13 egunean aurkeztu ahal izango dira eskaintzak. Halandabe, udalbatzarrak

onetsi beharko dau erabagi hori, bestela balio barik geratuko da. Datorren astean itxaroten dabe ohiko udalbatzarraren egitea. «Egun batzuk behar dira BAOan argitaratzeko eta ordu-rako udalbatzarraren onespina eukitea itxaroten dogu. Holan jarraian atara ahal izango doguz lehiaketara», azaldu dau udal arduradun nagusiak

Matienako kultur etxeko obrak enkanteda hartzeko eskaintza 2.554.301 eurokoa izango da. Uriartek adierazo dauenez, zezeilerako zenbat eskaintza aurkeztu diran jakiterik izango dabe, eta ostean behar-rak emon beharko dabez.